

Georgieraren eta armenieraren alfabetoetan idatzitako izenak euskarara aldatzeko transkripzio-sistemak

1 AURKEZPENA

Hego Kaukasoko toponimia aztertzean (ikus 162. araua) heldu behar izan zion Euskaltzaindiak georgieraren eta armenieraren transkripzioaren gaiari. Gaiaren azterketa zabala eta xehea eginda, bi alfabeto horietan idatzitako izenak euskarara aldatzeko sistemak finkatu ziren, eta sistema horietako irizpideak aplikatu ziren arau hartan, ohiko irizpideez gainera, Armeniako eta Georgiako leku-izenen euskarazko ordainak emateko.

Transkripzio-sistemok, dena den, ez dira leku-izenetarako bakarrik. Berdin-berdin erabil daitezke, adibidez, pertsona-izenetan ere. Horiek horrela, Euskaltzaindiak egoki iritzi dio egindako azterketa-lana eta hartutako irizpideak aparteko arau batean argitaratzeari, toponimia-arauan agertzen ez diren Georgiako eta Armeniako gainerako leku-izenak, baita bi estatu horietako pertsona-izenak ere, euskarara nola transkribatu behar diren zehazteko¹.

2 GEORGIERA

Georgierari buruzko jakingarriak

Georgiar alfabetoa georgiera idazteko berezko alfabetoa da, V. mendeaz geroztik erabilia. Alfabeto modernoak 33 letra ditu, eta zehazki dagokio georgieraren sistema fonologikoari.

Georgiako Geodesia eta Kartografiako Estatu Departamentuak, Georgiako Linguistika Institutuarekin batera, transliterazio-sistema nazional bat onartu zuen 2002ko otsailean

¹ Azterketa egitea eta transkripzio-proposamena Exonomastika batzordearen ardura izan bada ere, bermea lortzearen, georgierari buruzko proposamena Natela Sturuia georgiar euskaltzain urgazleari eta armenierari buruzkoa Vahan Sarkisian armeniar ohorezko euskaltzainari bidali zitzaion. Natela Sturuaren ohartxoak eta oniritzia jaso ondoren prestatu da georgieraren transkripzio-sistema. Vahan Sarkisianen oniritzi orokorra ere jaso zuen proposamenak, baina hark agindutako albo-ohartxo osagarriak ez ziren iritsi, tarte horretan zendu baitzen.

georgieraren alfabeto modernoa latindar alfabetora aldatzeko. Sistema hori erabiltzen da gidabaimenetako izenak idazteko, eta sistema hori erabiltzen du Georgiako Biblioteka Nazionalak ere.

Georgiera erromanizatzeko, nolanahi ere, beste bi sistema nagusi daude:

- ISO 9984 sistema. Nazioarteko transliterazio-sistema estandarra.

- BGN/PCGN sistema. Sistema aski irakurerraza eta ahoskaerraza da ingelesdunentzat (BNG, US Board on Geographic Names; PCGN, Permanent Committee on Geographical Names for British Official Use).

Hona hemen hiru sistemak elkarren ondoan paratuak, eta Nazioarteko Alfabeto Fonetikoaren arabera letra bakoitzari dagokion fonema (IPA, International Phonetic Alphabet):

Letra	Nazionala	ISO 9984	BGN	IPA
ა	A a	A a	A a	[ɑ]
ბ	B b	B b	B b	[b]
გ	G g	G g	G g	[g]
დ	D d	D d	D d	[d]
ე	E e	E e	E e	[ɛ]
ვ	V v	V v	V v	[v]
ზ	Z z	Z z	Z z	[z]
თ	T t	T' t'	T' t'	[tʰ]
ი	I i	I i	I i	[i]
კ	K' k'	K k	K k	[k'] ²
ლ	L l	L l	L l	[l]
მ	M m	M m	M m	[m]
ნ	N n	N n	N n	[n]
ო	O o	O o	O o	[ɔ]
პ	P' p'	P p	P p	[p'] ²
ჭ	Zh zh	Ž ž	Zh zh	[ʒ]
რ	R r	R r	R r	[r]

Letra	Nazionala	ISO 9984	BGN	IPA
ს	S s	S s	S s	[s]
ტ	T' t'	T t	T t	[t'] ²
უ	U u	U u	U u	[u]
ფ	P p	P' p'	P' p'	[pʰ]
ქ	K k	K' k'	K' k'	[kʰ]
ყ	Gh gh	Ĝ ĝ	Gh gh	[ɣ]
ღ	Q' q'	Q q	Q q	[q'] ²
შ	Sh sh	Š š	Sh sh	[ʃ]
ჩ	Ch ch	Č č	Ch' ch'	[tʃ]
ც	Ts ts	C' c'	Ts' ts'	[ts]
ძ	Dz dz	J j	Dz dz	[dz]
წ	Ts' ts'	C c	Ts ts	[ts']
ჭ	Ch' ch'	Č č	Ch ch	[tʃ'] ²
ხ	Kh kh	X x	Kh kh	[x]
ჯ	J j	J j	J j	[dʒ]
ჰ	H h	H h	H h	[h]

² Kontsonante ejektiboa. Glotisaren goranzko mugimendu batek bidaltzen du gora airea, birikek eta diafragmak parte hartu gabe. Kontsonante ejektiboak gorrak dira, ahots-korden bibraziorik gabeak.

Nola transkribatu georgieraren alfabetoa euskarara?

1- Goi-mailako lan akademikoetan edo espezializatuetan, erabateko zehaztasuna behar denean eta alderantzizko transliterazioa egiteko modua ziurtatu behar denean, ISO 9984 erabiltzea komeni da, hura baita nazioarteko estandarra.

2- Komunikabideetan, literaturan, irakaskuntza ez-espezializatuan eta, oro har, dibulgazioan, hau da, eguneroko erabileran, ISO 9984 sistema ez da erabilgarria, zeinu diakritiko ugari erabiltzen baitu (ž, ġ, š, č', č, ĵ).

3- Georgiako sistema nazionala eta BGN/PCGN sistema oso-oso antzekoak dira. Letra berak erabiltzen dituzte, eta bien artean dagoen alde bakarra apostrofoen erabilera da. Bi sistemek erabiltzen dituzte apostrofoak, baina letra desberdinetan. Bestalde, biek erabiltzen dituzte *zh*, *gh*, *sh*, *ch*, *ts*, *dz* eta *kh* digramak. Georgiak sistema ofiziala duenez, logikoena litzateke sistema hori erabiltzea. Ez dirudi, ordea, sistema hori oraindik oso zabaldua dagoenik nazioartean. Litekeena da urte batzuen ondoren egoera normaltzea eta nazioartean sistema hori nagusitzea. Orduan, euskara ere sistema horretara biltzea litzateke egokiena. Bitartean, datuek erakusten dute sistema hori ez dela erabiltzen oraindik nazioartean. Hona hemen, adibidez, Georgiako hiru lehendakariaren transkripzioak zenbait hizkuntzatan:

georgiera	მიხეილ სააკაშვილი gaur egungo lehendakaria	ედუარდ შევარდნაძე bigarren lehendakaria	ზვიად გამსახურდია lehenengo lehendakaria
Georgiako sistema nazionala	Mikheil Saak'ashvili	Eduard Shevardnadze	Zviad Gamsakhurdia
ingeleza	Mikheil Saakashvili	Eduard Shevardnadze	Zviad Gamsakhurdia
gaztelania	Mijeíl Saakashvili	Eduard Shevardnadze	Zviad Gamsakhurdia
frantsesa	Mikheil Saakachvili	Edouard Chevardnadze	Zviad Gamsakhourdia
alemana	Micheil Saakaschwili	Eduard Schewardnadse	Swiad Gamsachurdia
katalana	Mikhaïl Saakaixvili	Eduard Xevardnadze	Zviad Gamsakhurdia
nederlandera	Micheil Saakasjvili	Edoearde Sjevardnadze	Zviad Gamsachoerdia

Eta hona hemen Georgiako lau hiriren transkripzioak zenbait hizkuntzatan:

georgiera	Georgiako sistema nazionala	ingeleza	gaztelania	frantsesa	alemana	nederlandera	katalana
თბილისი	Tbilisi	Tbilisi	Tiflis	Tbilissi	Tiflis	Tbilisi	Tbilisi
ქუთაისი	Kutaisi	Kutaisi	Kutaisi	Koutaïssi	Kutaissi	Koetaisi	Kutaïsi
ბათუმი	Batumi	Batumi	Batumi	Batoumi	Batumi	Batoemi	Batum / Batumi
რუსთავი	Rustavi	Rustavi	Rustavi	Roustavi	Rustawi	Roestavi	Rustavi
ზუგდიდი	Zugdidi	Zugdidi	Zugdidi	Zougdidi	Sugdidi	Zoegdidi	Zugdidi

4- Egoera orokorra ikusita, eta nazioartean Georgiako sistema nazionala zabaltzen ez den artean, euskarazko ohiko erabileran (komunikabideak, literatura, irakaskuntza ez-espezializaturia eta dibulgazioa) euskararako transkripzio praktikoa bat erabiltzea gomendatzen du Euskaltzaindiak, gure inguruko erdaretan egiten den moduan, eta alfabeto zirilikoaren kasuan egin zen bezala (156. araua). Hona hemen euskararako transkripzio praktikoa, euskararen sistema grafiko-fonologikoa kontuan hartuta eginda:

Georgieraren alfabetoa euskarara aldatzeko baliokidetzeta-aula

georgiera	euskara	Georgiako sistema naz.	ISO 9984	BGN	IPA
ა	a	a	a	a	[a]
ბ	b	b	b	b	[b]
გ	g	g	g	g	[g]
დ	d	d	d	d	[d]
ე	e	e	e	e	[ɛ]
ვ	v	v	v	v	[v]
ზ	z	z	z	z	[z]
თ	t	t	t'	t'	[tʰ]
ი	i	i	i	i	[i]
კ	k	k'	k	k	[kʰ]
ლ	l	l	l	l	[l]
მ	m	m	m	m	[m]
ნ	n	n	n	n	[n]
ო	o	o	o	o	[ɔ]
პ	p	p'	p	p	[pʰ]
ჟ	zh	zh	ž	zh	[ʒ]
რ	r	r	r	r	[r]
ს	s	s	s	s	[s]
ტ	t	t'	t	t	[tʰ]
უ	u	u	u	u	[u]
ფ	p	p	p'	p'	[pʰ]
ქ	k	k	k'	k'	[kʰ]
ყ	gh	gh	ḡ	gh	[ɣ]
ყ	q	q'	q	q	[qʰ]
შ	x	sh	š	sh	[ʃ]
ჩ	tx	ch	č'	ch'	[tʃ]
ც	ts	ts	c'	ts'	[ts]
ძ	dz	dz	j	dz	[dz]
წ	ts	ts'	c	ts	[tsʰ]
ჭ	tx	ch'	č	ch	[tʃʰ]
ხ	kh	kh	x	kh	[x]
ჯ	j	j	ǰ	j	[dʒ]
ჰ	h	h	h	h	[h]

Hona hemen gorago emandako adibideen euskarazko transkripzioa:

georgiera	მიხეილ სააკაშვილი gaur egungo lehendakaria	ედუარდ შევარდნაძე bigarren lehendakaria	ზვიად გამსახურდია lehenengo lehendakaria
euskara	Mikheil Saakaxvili	Eduard Xevardnadze	Zviad Gamsakhurdia
Georgiako sistema nazionala	Mikheil Saak'ashvili	Eduard Shevardnadze	Zviad Gamsakhurdia
ingeleza	Mikheil Saakashvili	Eduard Shevardnadze	Zviad Gamsakhurdia
gaztelania	Mijeíl Saakashvili	Eduard Shevardnadze	Zviad Gamsakhurdia
frantsesa	Mikheil Saakachvili	Edouard Chevardnadze	Zviad Gamsakhourdia
alemana	Micheil Saakaschwili	Eduard Schewardnadse	Swiad Gamsachurdia
katalana	Mikhaïl Saakaixvili	Eduard Xevardnadze	Zviad Gamsakhurdia
nederlandera	Micheil Saakasjvili	Edoeard Sjevardnadze	Zviad Gamsachoerdia

georgiera	euskara	Georgiako sistema	ingeleza	gaztelania	frantsesa	alemana	nederlandera
თბილისი	Tbilisi	Tbilisi	Tbilisi	Tiflis	Tbilissi	Tiflis	Tbilisi
ქუთაისი	Kutaisi	Kutaisi	Kutaisi	Kutaisi	Koutaïssi	Kutaissi	Koetaisi
ბათუმი	Batumi	Batumi	Batumi	Batumi	Batoumi	Batumi	Batoemi
რუსთავი	Rustavi	Rustavi	Rustavi	Rustavi	Roustavi	Rustawi	Roestavi
ზუგდიდი	Zugdidi	Zugdidi	Zugdidi	Zugdidi	Zougdidi	Sugdidi	Zoegdidi

3 ARMENIERA

Armenierari buruzko jakingarriak

Armeniar alfabetoa V. mendean sortu zuten. XIX. mendera arte, armeniera klasikoa izan da armeniar literaturaren hizkuntza; harrezkero, armeniar alfabetoa bi literatura-dialekto modernoak, ekialdeko armeniera eta mendebaldeko armeniera, idazteko erabiltzen da (armeniera klasikoa liturgian baino ez da erabiltzen). Denboraren poderioz, mendebaldeko armenierak zenbait aldaketa izan ditu, nagusiki kontsonante herskarietan; horregatik, hitz batzuk, bi dialektoetan berdin idatzi arren, desberdin ahoskatzen dira. Armeniako estatuan ekialdeko armeniera erabiltzen da. Mendebaldeko armenierak (gehienbat Turkian eta armeniar diasporan) 50.000 hiztun inguru ditu gaur egun, eta 2009an UNESCOk adierazi zuen mendebaldeko armeniera erabat galtzeko arriskuan zegoela.

Armeniak, gaur egun, ez du armenierarako erromanizazio-sistema ofizialik.

Armeniera latindar alfabetora aldatzeko, zenbait sistema daude:

Hübschmann-Meillet (1913an sortua)

Armeniera klasikoa erromanizatzeko erabiltzen da, eta ez da erabiltzen gaur egungo armenierarako.

BGN/PCGN (1981ean sortua)

(BNG, US Board on Geographic Names; PCGN, Permanent Committee on Geographical Names for British Official Use)

BGN/PCGN sistema transkripzio-sistema bat da; ez da itzulgarria (batez ere digrafo gisa transkribatzen diren letren kasuan), hau da, ez du balio latindar alfabetotik armeniar alfabetorako transliterazioa egiteko. Ingelesdunentzat pentsatua dago, eta, alde horretatik, irakurterraza eta ahoskaerra da ingeles hiztunentzat. Eskuineko komatxoa (') erabiltzen du hasperenduak adierazteko, eta letra batzuen transkripzioa aldatu egiten da letraren testuinguruaren arabera:

- Armeniar alfabetoaren Է/է bokala ye transliteratzen da, baldin eta hitzaren hasieran edo Ե/Է, Է/Է, Ը/ը, Ի/ի, Ո/ո, ՌԻ/ռլ eta Օ/օ bokalen ondoren badago; gainerako kasuetan, e transliteratzen da.
- Armeniar alfabetoaren Ո/ո bokala vo transliteratzen da, baldin eta hitzaren hasieran badago; ևո hitzean ov transliteratzen da; eta gainerako kasu guztietan, o transliteratzen da.
- Armeniar alfabetoaren Վ/վ kontsonantea yev transliteratzen da, baldin eta hitzaren hasieran, bakarrik edo Ե/Է, Է/Է, Ը/ը, Ի/ի, Ո/ո, ՌԻ/ռլ eta Օ/օ bokalen ondoren badago; gainerako kasu guztietan, ev transliteratzen da.

ISO 9985 (1996an sortua)

ISO 9985 (1996) armeniar alfabeto modernoa transliteratzeko nazioarteko estandarra da, eta itzulgarria da, hau da, latindar alfabetotik armeniar alfabetorako transliterazioa egiteko balio du, ez baitu digraforik erabiltzen. BGN/PSGN bezala, eskuineko komatxoa (') erabiltzen du hasperenduak adierazteko. Sistema hau gomendatzen da nazioartean testu-truke bibliografikoetarako (erreferentzia bibliografikoak emateko), eta leku-izen eta pertsona-izenen erromanizazio sinplifikaturako oinarritzat ere erabil daiteke, Erdialdeko Europan erabiltzen den latindar karaktereen kodifikazioarekin (ISO-8859-2) ondo konbinatzen delako (ISO-8859-2 kodifikazioa —Latin-2 ere baderitzo— aleman, eslovakiera, esloveniera, kroaziera, txekiera, hungariera, poloniera eta errumaniera idazteko erabiltzen da). Alabaina, zeinu diakritiko ugari erabiltzen ditu, eta, alde horretatik, euskal hiztunentzat, baita gaztelania-, frantses- edo ingeles-hiztunentzat ere, aski arrotz gertatzen da.

ALA-LC (1997)

LC Estatu Batuetako liburutegietan eta argitalpenetan erabiltzen da (ALA, American Library Association; LC, Library of Congress)

ALA-LC (1997) sistema BGN/PCGN sistemaren antzekoa da, baina hasperenduak adierazteko ezkerreko komatxoa `՝ erabiltzen du. Sistema bikoitza da: bertsio bat du ekialdeko armeniera eta armeniera klasikorako eta beste bat mendebaldeko armenierarako. Hauek dira baliokideak (ekialdekoa/mendebaldekoa): b/p, g/k, d/t, dz/ts,

ch/j. Horretaz gainera, erromanizazioaren anbiguitasuna murriztearren, apostrofo bertikal bat (') tartekatzen da bi letra artean digrafo ez direla adierazteko.

ASCII karaktereak besterik erabiltzen ez duten metodoak

Armeniako webgune batzuetan, ASCII karaktereak soilik erabiltzen dituzten transliterazio-sistema ez-ofizialak ere erabiltzen dira.

Ikus hurrengo orrialdean sistema horiek guztiak elkarren ondoan paratuak taula batean² (hondo berdea duten letrak armeniera klasikoaren edo ekialdeko armenieraren transliterazioari dagozkio; hondo morea dutenak mendebaldeko armenieraren transliterazioari dagozkio; hondo zuria dutenek guztietarako balio dute. Hondo gorria dutenak testuinguruaren arabera dira edo digrafoak dira).

² Jatorria: http://en.wikipedia.org/wiki/Romanization_of_Armenian

Armenieraren transliterazio- eta transkripzio-sistemen laburpen-laukia

Armeniar alfabetoa	letra larria	Ա	Բ	Գ	Դ	Ե	Զ	Է	Ը	Թ	Ճ	Ի	Լ	Խ	Ս	Կ	Հ	Ձ	Ղ	Ճ	Ս	
	letra xehea	ա	բ	գ	դ	ե	զ	է	ը	թ	ճ	ի	լ	խ	ս	կ	հ	ձ	ղ	ճ	ս	
Armeniera klasikoaren eta ekialdeko armenieraren erromanizazioa	ASCII kar.							e'	y'	t'	zh				c'				dz	gh	tw	
	Hübschmann-Meillet				e			ê	ə	t'	ž			x	c				j	ł	č	
	ISO 9985		b	g	d			ē	ë	t'					ç	k				ğ	č	
	BGN/PCGN	a			e,	z	e	y	t'		i	l			ts		h		dz		ch	m
	ALA-LC				e,		ē	ě	t'	zh				kh					gh			
Mendebaldeko armenieraren erromanizazioa	ALA-LC		p	k	t	e		ē	ě	t'	zh				dz	g			ts		j	
	ASCII input				e		e'	y'	t'				x						tz			
Armeniar alfabetoa	letra larria	Յ	Ն	Շ	Ո	Չ	Պ	Ջ	Ռ	Ս	Վ	Շ	Ր	Ց	Ի	Փ	Ք	Օ	Ֆ	ՈՒ	Է	
	letra xehea	յ	ն	շ	ո	չ	պ	ջ	ռ	ս	վ	շ	ր	ց	ի	փ	ք	օ	ֆ	ու	և	
Armeniera klasikoaren eta ekialdeko armenieraren erromanizazioa	ASCII kar.			sh	vo	ch		j	rr					c		p'	k',	o				
	Hübschmann-Meillet	y		š	o	č'		j	ř				c'		p'	k'	ô			u	ev	
	ISO 9985					č	p		ř			t		c'				ò		ow	ew	
	BGN/PCGN	n		o,	vo	ch'		j	rr	s	v		r	ts'	w	p'	k'	o	f		ev,	yev
	ALA-LC	y,																				
Mendebaldeko armenieraren erromanizazioa	ALA-LC	h		sh	o	ch'		ch	ř				ts'		p'	k'	ô		u		ew,	ev
	ASCII input	h'		vo	ch		b	ch'	rr			d		c	p'	k',	o					ev

Azken bi zutabekoak ez dira benetako letrak. Lehenengoa digrafo bat da (horregatik, ISO sisteman bi karakterez transliteratzen da). Azken zutabekoa armenierako *ev* hitza (*eta* esan nahi du) idazteko erabiltzen den karakterea da, eta beti bakarrik erabiltzen da (gutxi gorabehera, latindar alfabetoaren & karakterearen baliokidea da). Hondo gorria dutenak testuinguruaren mende dauden transliterazioak dira.

Nola transkribatu armenieraren alfabetoa euskarara?

1- Armeniera klasikoa oso lan espezializatueta baino ez da landuko. Horretarako, Hübschmann-Meillet sistema da erabiliena nazioartean, eta euskaraz ere hura erabiltzea komeni da.

2- Mendebaldeko armeniera desagertzeko zorian dago, eta normalean ez da testuetan agertuko. Lan espezializatueta, Hübschmann-Meillet sistema edo ISO 9985 sistema erabil daiteke.

3- Ekialdeko armenierari dagokionez, goi-mailako lan akademikoeta edo espezializatueta, erabateko zehaztasuna behar denean eta alderantzizko transliterazioa egiteko modua ziurtatu behar denean, ISO 9985 sistema erabiltzea komeni da, hura baita nazioarteko estandarra.

4- Komunikabideeta, literaturan, irakaskuntza ez-espezializatueta eta, oro har, dibulgazioan, hau da, eguneroko erabileran, ISO 9985 sistema ez da erabilgarria, zeinu diakritiko ugari erabiltzen baitu (ē, ë, ğ, č, ĉ, ř...). Horregatik, gure kultura-inguruneke hizkuntzeta (gaztelania, frantsesa, ingelesa, alemana...) transkripzio praktikoak erabiltzen dira. Adibidez, ingelesez, BGN/PCGN sistema ofiziala dago, baina, hala ere, sistema hori pixka bat sinplifikatuta erabiltzen da komunikabideeta eta dibulgazioan.

Gure inguruko hizkuntza nagusietan, oro har, gaur egun transkripzio sinplifikatuak erabiltzen dira maila ez-espezializatueta. Hona hemen, adibidez, nola transkribatzen den gaur egungo Armenia estatu independentearen orain arteko hiru lehendakarien izena zenbait hizkuntzeta:

armeniera	Մերժ Ազատի Սարգսյան gaur egungo lehendakaria	Լևոն Տեր-Պետրոսյան lehen lehendakaria	Ռոբերտ Սեդրակի Քոչարյան bigarren lehendakaria
ISO 9985	Serž Azati Sargsyan	Lewon Ter-Petrosyan	Robert K'očaryan
ingeleza	Serzh Azati Sargsyan	Levon Ter-Petrossian / Levon Ter-Petrosyan / Levon Ter-Petrosian	Robert Sedraki Kocharyan
gaztelania	Serzh Sargsyan	Levon Ter-Petrossian	Robert Sedraki Kocharián
frantsesa	Serge Azati Sargsian / Serge Azati Sarkissian	Levon Ter-Petrossian	Robert Sedraki Kotcharian
alemana	Sersch Asati Sargsjan	Lewon Hakobi Ter- Petrosjan	Robert Kotscharjan
nederlandera	Serzj Asati Sarkisian	Levon Ter-Petrosjan	Robert Sedraki Kotsjarian
poloniera	Serž Sarkisjan	Lewon Ter-Petrosjan	Robert Sedraki Koczarian
turkiera	Serj Sarkisyan	Levon Ter-Petrosyan	Robert Koçaryan
suediera	Serzj Sargsian	Levon Ter-Petrossian	Robert Sedraki Kotjarjan

5- Euskaraz ez dago armenierazko izenak transkribatzeko tradizio finkaturik, gutxitan agertzen baitira euskarazko testuetan. Egoera orokorra ikusita, euskarazko ohiko

erabileran (komunikabideak, literatura, irakaskuntza ez-espezializatua eta dibulgazioa) euskararako transkripzio praktikoa erabiltzea gomendatzen du Euskaltzaindiak, gure inguruko erdaretan egiten den moduan, eta alfabeto zirilikoaren kasuan egin zen bezala (156. araua). Hona hemen euskararako transkripzio praktikoa, euskararen sistema grafiko-fonologikoa kontuan hartuta eginda:

Armenieraren alfabetoa euskarara aldatzeko baliokidetzeta-aula

Armeniera xehea / larria	euskara sinplifikatua	ISO 9985	BPG/PCGN	ingeles sinplifikatua	Ahoskera ekialdeko armenieran
Ա / ա	a	a	a	a	[a]
Բ / բ	b	b	b	b	[b]
Գ / գ	g	g	g	g	[g]
Դ / դ	d	d	d	d	[d]
Ե / ե	e	e	e	e	[ɛ]
	je [hitz-has.]		ye [hitz-has.]	ye [hitz-has.]	[jɛ] [hitz-has.]
Զ / զ	z	z	z	z	[z]
Է / է [hitz-has. soilik]	e	ē	e	e	[ɛ]
Ը / ը	e	ë	y	e	[ə] ¹
Թ / թ	t	t'	t'	t	[tʰ]
Ժ / ժ	zh	ž	zh	zh	[ʒ]
Ի / ի	i	i	i	i	[i]
Լ / լ	l	l	l	l	[l]
Խ / խ	kh	x	kh	kh	[χ]
Ծ / ծ	ts	ç	ts	ts	[ts]
Կ / կ	k	k	k	k	[k]
Հ / հ	h	h	h	h	[h]
Ձ / ձ	dz	j	dz	dz	[dz]
Ղ / ղ	gh	ǰ	gh	gh	[ɣ] ²
Ճ / ճ	tx	č	ch	ch	[tʃ]
Մ / մ	m	m	m	m	[m]
Յ / չ	i	y	y	y	[j]

Armeniera xehea / larria	euskara sinplifikatua	ISO 9985	BPG/PCGN	ingeles sinplifikatua	Ahoskera ekialdeko armenieran
	j [hitz-has.]				
Ն / ն	n	n	n	n	[n]
Շ / շ	x	š	sh	sh	[ʃ]
Ո / ո	o vo [hitz-has.]	o	o vo [hitz-has.]	o vo [hitz-has.]	[o] [vo] [hitz-has.]
Չ / չ	tx	č	ch'	ch	[tʃʰ]
Պ / պ	p	p	p	p	[p]
Ջ / ղ	j	ǰ	j	j	[dʒ]
Ռ / ռ ³	r	ř	rr	r	[r]
Ս / ս	s	s	s	s	[s]
Վ / վ	v	v	v	v	[v]
Տ / տ	t	t	t	t	[t]
Ր / ղ ³	r	r	r	r	[r]
Ց / գ	ts	c'	ts'	ts	[tsʰ]
Ի / լ ⁴		w	w		[v] ³
Փ / փ	p	p'	p'	p	[pʰ]
Ք / ք	k	k'	k'	k	[kʰ]
Օ / օ [hitz-has. soilik]	o	ò	o	o	[o]
Ֆ / ֆ	f	f	f	f	[f]
Ու / ու ⁴	u	ow	u	u	[u]
(Եվ, Եվ) / լ ⁴	jev [hitz-has.] ev	ew	yev [hitz- has.] ev	yev [hitz-has.] ev	[jɛv] [hitz-has] [ɛv]

Oharrak

-Goi-indizean agertzen den <h> letraren bidez ([^h]) hasperentzea adierazten da nazioarteko alfabeto fonetikoan.

1- <a> eta <e> arteko zerbait da.

2- Frantsesezko *rester* hitzeko lehenengo <r> letra bezala ahoskatzen da.

3- <Ր / ղ> letra ez da inoiz gertatzen hitz-hasieran, kanpoko hitz gutxi batzuetan izan ezik; <Ռ / ռ> letra, berriz, hitz-hasieran agertzen da. Ekialdeko armenieran, bi letren ahoskera berdina da. Horregatik, ohikoa da biak berdin transkribatzea <r> letraren bidez transkripzio sinplifikatuetan.

4- <Ի / լ> letra, garai batean, armeniar alfabetoaren 34. letra zen, baina gaur egun ez da erabiltzen ekialdeko armeniar alfabetoan. Haren ordean, <ռ> eta <լ> letren batura erabiltzen da, <ռլ>, eta bokal baten balioa du (monoptongoa): [u].

Եվ eta Եվ letrak maiuskulaz idazten diren hitzetan erabiltzen dira; Ռլ eta Եվ maiuskulaz hasten diren hitzetan erabiltzen dira, eta ու eta լ minuskulak dira.

Hona hemen, adibidez, armeniar politikari ezagun batzuen izenak nola transkribatzen diren euskarara taula hori aplikaturik:

armeniera	Սերժ Ազատի Սարգսյան (gaur egungo lehendakaria)	Լևոն Տեր-Պետրոսյան (lehen lehendakaria)	Ռոբերտ Սեդրակի Քոչարյան (bigarren lehendakaria)	Անաստաս Միկոյան (sobietar politikaria)
euskara	Serzh Azati Sargsian	Levon Ter-Petrosian	Robert Sedraki Kotxarian	Anastas Mikoian
ISO 9985	Serž Azati Sargsyan	Lewon Ter-Petrosyan	Ռոբերտ Կ'ոճարյան	Anastas Mikoyan
ingeleza	Serzh Azati Sargsyan	Levon Ter-Petrossian / Levon Ter-Petrosyan / Levon Ter-Petrosian	Robert Sedraki Kocharyan	Anastas Mikoyan
gaztelania	Serzh Sargsyan	Levon Ter-Petrossian	Robert Sedraki Kocharián	Anastás Mikoyán
frantsesa	Serge Azati Sargsian / Serge Azati Sarkissian	Levon Ter-Petrossian	Robert Sedraki Kotcharian	Anastas Mikoyan
alemana	Sersch Asati Sargsjan	Lewon Hakobi Ter-Petrosjan	Robert Kotscharjan	Anastas Mikojan
nederlandera	Serzj Asati Sarkisian	Levon Ter-Petrosjan	Robert Sedraki Kotsjarian	Anastas Mikojan

Arau honetako irizpideak eta zerrendak toki eta egun hauetan onartu ditu Euskaltzaindiak:

2011ko urtarrilaren 28an onartua, Donostian.

2011ko otsailaren 25ean onartua, Bilbon.

(Exonomastika batzordeak 2011ko azaroaren 21ean paratua)